



3. ildoa: EUSKARA IKASTEKO DIRU LAGUNTZAK UDALEKO ETA BERE AUTONOMIADUN ERAKUNDEETAKO LANGILEENTZAT ETA ZINEGOTZIENTZAT

1. HARTZAILEAK

- Euskara ikastera doazen Getxoko Udaleko langileak eta Udaleko autonomiadun erakundeetako langileak.
- Getxoko Udaleko zinegotziak.

2. IKASTAROAK

- Diruz lagunduko direnak HABEk homologatutako ikastaroak izango dira (**IKUS oinarri orokor hauetako 3.1 puntua**).
- Ikastaroak, HABEk homologatutako euskaltegietan egin beharko dira.
- Barnetegien kasuan ez dira egonaldiko gastuak ordainduko.

3. BALDINTZAK

- ⇒ Ikastaro presentzialetan: eskatzaileak, gutxienez, euskaltegian hartutako eskola-ordu guztien %85era joan dela egiaztatu behar du.
- ⇒ Auto-ikaskuntza bidezko ikastaroetan edo mistoetan **4 baldintza hauek bete beharko** ditu eskatzaileak:
 - ❶ Eskatzaileak ikasturterako ipinitako **helburu-maila gainditu** duela.
 - ❷ **Bakarkako lanean**: euskaltegiak ikasturtearen hasieran eskatzaileari jarri dizkion bakarka egiteko ordu teoriko guztien %50a egin duela.
 - ❸ **Tutoretzetan**: euskaltegiak jarritako **tutoretza-ordu guztien %85era** joan dela egiaztatu beharko du.
 - ❹ **Mintzamen** saioretan ere berdin, **mintzamen-ordu guztien %85era** joan dela egiaztatu beharko du.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

IKASTAROAREN HASIERAN
<p>4.1.- Dirulaguntza eskaera Dirulaguntza eskaera - Euskara Zerbitzua izeneko inprimakia beteta (ikus eranskina), kontu korrontearen zenbakia (IBAN kodeari dagozkion 24 digitu) jasota utziz eta zein ataletan eta lanpostutan egiten duen lan.</p>
<p>4.2.- Bantexeko jatorrizko ordainagiria, zigilatuta, matrikula ordaindu dela adierazten duena.</p>
<p>4.3.-Zerga betebeharrak egunean izatea Eskatzaileak ziurtatu behar du zerga betebeharrak ondorengo erakundeekin egunean dituela:</p> <p>4.3.1.-Ogasunarekin Zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen Ogasuneko ziurtagiria aurkeztu beharko du eskatzaileak. Ziurtagiri hau, dirulaguntza eskaeran AITORTZEN DUT atala beteta ordezkatu ahal izango du.</p> <p>4.3.2.- Gizarte Segurantzarekin Getxoko Udalak kontsultak egin ahal izango ditu, dirulaguntza eskatzaileak Gizarte Segurantzarekin zorrik baduen ikusteko, baldin eta interesduna datu horiek kontsultatzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.</p> <p>4.3.3.- Getxoko Udalarekin Getxoko Udalak ofizios egiaztatuko du eskatzaileak zorrik ba ote duen Getxoko Udalarekin. Eskatzaileak Udalarekin zorren bat badu Udalak interesdunari jakinaraziko eta zor hori ordaintzeko (edota zatikapena eskatzeko) epea emango dio. Egoera epearen barruan zuzenduz gero, Udalak interesdunaren</p>

aldeko dirulaguntza ematea erabakiko du. Zuzentzen ez badu, ordea, Udalak ukatu egingo dio dirulaguntza, ez duelako onuraduna izateko baldintzetako bat betetzen.

IKASTAROAREN AMAIERAN

Ikastaro presentzialetan, Euskaltegiaren ziurtagiria: modulua, hasierako urratsa/maila, ikastaroa noiz hasi eta amaituko den, eskatzailea noiz hasiko den ikastaroan eta noiz amaituko duen, taldeak egindako urratsa/maila eta ikasleak egindako urratsa/maila, ikasleak gainditutako maila/urratsa, taldeak eman dituen klase-orduak guztira, ikasleak hartutako orduak guztira, ordutegia, matrikularen prezioa eta beste gastuak (materiala, egonaldia).

Auto-ikaskuntza bidezko ikastaroetan edo mistoetan: euskaltegiaren egiaztagiriak honako hauek jasoko ditu: ikastaro mota (autoikaskuntza edo mistoa), modulua, helburu-maila, asistentzia bakarkako orduetan, asistentzia tutoretza-orduetan, asistentzia mintzamen-orduetan, ikastaroaren hasiera eta amaiera eguna, ikasleak lortutako maila, matrikula prezioa (klaseen prezioa).

5. ORDAINKETA

Getxoko euskaltegietan (Udal Euskaltegia, Lauaxeta AEK Euskaltegia eta J.A. Agirre euskaltegia) egindako ikastaro presentzialak	Getxon ez dauden euskaltegietan egindako ikastaro presentzialak	Auto-ikaskuntza bidezko ikastaroetan edo mistoetan
Udalaren dirulaguntza ez da, inolaz ere, matrikula gisa, ordaintzen denaren %80 baino gehiago izango.	Udalaren dirulaguntza ez da, inolaz ere, Getxoko Udal Euskaltegian ikastaro berarengatik, matrikula gisa, ordaintzen denaren %80 baino gehiago izango.	Udalaren dirulaguntza ez da, inolaz ere, Getxoko Udal Euskaltegian, urte osoko BOGA izeneko ikastaro berarengatik, matrikula gisa, ordaintzen denaren %80 baino gehiago izango.